

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2025KO DEIALDIA

490/2025 EBAZPENA, martxoaren 8koa

22-05-2025

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

KALIFIKAZIOA

DEITURAK

IZENA

NANa/ANTa

Erantzun zuzen bakoitzagatik 0,4 puntu gehituko dira. Erantzun oker bakoitzagatik 0,1 puntu kenduko dira. Bi markatuz gero galdera ez da puntuatuko.

1.- Zein da ausazko atzipeneko memoria edo ausazko sarbidedun memoria gisa ezagutzen dena?

- ☐ RAM memoria
- ☐ ROM memoria
- ☐ Kanpoko memoria
- ☐ CDa

2.- Mikroprozesadore kontzeptuaren definizio zuzena hauetako zein den esan:

- ☐ Unitate aritmetiko-logikoak eta kontrol unitateak osatzen duten multzoa da.
- ☐ RAM unitatea duen zirkuitu inprimatua da.
- ☐ Zirkuitu inprimatu batean txertatutako CPU-a da.
- ☐ Unitate aritmetiko-logikoa duen zirkuitu inprimatua da.

3.- Zenbaki-sistema hauetako zein erabiltzen dute ordenagailuek?:

- ☐ Sistema alfanumerikoa.
- ☐ Sistema hamartarra.
- ☐ Sistema numerikoa.
- ☐ Sistema bitarra.

4.- Luzapenek (artxiboaren izenean puntuaren ondoren doazen hiru hizkiek) hau adierazten diote Windows-i:

- ☐ Zein enpresa den artxiboaren jabea.
- ☐ Artxiboaren tamaina.
- ☐ Zein erabiltzailek sortu duen artxiboa.
- ☐ Zein familiatakoa den artxiboa; horri esker Windows-ek badaki zein aplikazioarekin zabaldu behar duen.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2025KO DEIALDIA

490/2025 EBAZPENA, martxoaren 8koa

22-05-2025

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

5.- Word dokumentu batean lanean ari garela "Gainidatzi" modua aktibatu da. Jarraian dokumentu berri bat irekitzen badugu, modu horrek aktibaturik jarraituko du?

- ☐ Ez, dokumentu berria delako.
- ☐ Bai.
- ☐ Ez, dokumentu batetik bestera aldatzen garen bakoitzean desaktibatzen delako aukera hori.
- ☐ Bai, baina soilik dokumentu berria aurrekoaren txantiloian oinarrituta badago.

6.- Access-ekin lan egiteko modurik azkarrena eta errazena hau da:

- ☐ Tabuladore bat erabiltzea.
- ☐ Leihoen bidez lan egitea.
- ☐ Morroi bat erabiltzea.
- ☐ Erantzun guztiak dira zuzenak.

7.- Nola sortzen da kontsulta bat Access-en?:

- ☐ Datu-basearen leihoan kokatuko gara eta aukeratuko dugu Kontsulta, Berria.
- ☐ Datu-basearen leihoan kokatuko gara eta aukeratuko dugu Tresnak, Kontsulta, Berria.
- ☐ Datu-basearen leihoan kokatuko gara eta aukeratuko dugu Txertatu, Kontsulta, Berria.
- ☐ Datu-basearen leihoan kokatuko gara eta aukeratuko dugu Edizioa, Kontsulta, Berria.

8.- "Webmail" posta sistema bat erabiltzeko ordenagailuan programa hau izan behar dugu:

- ☐ Outlook posta elektronikoko bezero bat.
- ☐ Nabigatzaile bat.
- ☐ Jabea den bezero bat.
- ☐ Lotus Notes posta elektronikoko bezero bat.

9.- Ordenagailuetako memoria nagusia mota honetakoa da:

- ☐ ROM
- ☐ BIOS
- ☐ RAM
- ☐ CMOS

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2025KO DEIALDIA

490/2025 EBAZPENA, martxoaren 8koa

22-05-2025

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

10.- Ordenagailu batek izan ditzake izen berbera (izena+luzapena) duten bi fitxategi?

- ☐ Ez, inoiz ez.
- ☐ Bai, baina soilik unitate desberdinetan badaude.
- ☐ Bai, baina erroko direktorioan badaude biak.
- ☐ Bai, baina soilik direktorio edo karpeta desberdinetan badaude.

11.- Esan ondoko aukeretatik zein den egokia fitxategi bat ezabatzeko:

- ☐ .- Fitxategia hautatu eta, ondoren, Editatu menua -> Kopiatu
- ☐ .- Fitxategia hautatu eta, ondoren, Editatu menua -> Itsatsi
- ☐ .- Fitxategia hautatu eta, ondoren, Testuinguruko menua -> Ezabatu
- ☐ .- Aurreko bat ere ez

12.- Periferiko multzo hauen artean, esan zeinetan diren guztiak sarrera-periferikoak:

- ☐ Inprimagailua, teklatura.
- ☐ Teklatura, monitorea.
- ☐ Barra-kodeen irakurgailua, inprimagailua.
- ☐ Sagua, teklatura, eskanerra.

13.- Microsoft Windows duen PC erako mikroordenagailu batean, zer tekla joko erabili daiteke dokumentuak kopiatzeko?:

- ☐ Ctrl + C
- ☐ Ctrl +V
- ☐ Ctrl + Alt + Supr
- ☐ Bat ere ez

14.- Microsoft Excel-ek erabiltzaileari aukera ematen dio kalkulu aritmetiko errazak egiteko zein funtzio matematiko aurreratuenak erabiltzeko, sarrera-datu batzuetatik abiatuta. Esan ezazu esaldi hauetako zein den egia:

- ☐ Excel orri batean kalkuluak automatikoak edo eskuz eginak izan daitezke; hemen zehaztu daiteke: Tresnak menua -> Aukerak -> Orokorra.
- ☐ Excel orri batean kalkuluak automatikoak edo eskuz eginak izan daitezke; hemen zehaztu daiteke: Tresnak menua -> Aukerak -> Kalkulatu.
- ☐ Excel orri jakin bateko kalkuluak automatikoki birkalkulatzeko Alt + F9 tekla-konbinazioa erabiltzen da.
- ☐ Excel orri batean kalkuluak automatikoak dira besterik zehaztu ezean. Eskuz egitea nahi badugu dagokion aukera instalatu behar da, hona joanda: Tresnak menua -> Osagarriak.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2025KO DEIALDIA

490/2025 EBAZPENA, martxoaren 8koa

22-05-2025

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

15.- Zenbakizko taulak aztertzeko nagusiki erabiltzen den softwarea honela deitzen da:

- ☐ Testu-prozesadorea
- ☐ Freewarea
- ☐ Kalkulu-orria
- ☐ Interfazea

16.- MS-DOS sistema eragilea(k):

- ☐ GUI erabiltzailearen interfaze grafiko sofistikatua du.
- ☐ Denbora errealeko sistema eragilea da.
- ☐ 64 bit-eko sistema da.
- ☐ Sistema eragile integratu gisa erabiltzen da maiz.

17.- Soinu txartelak:

- ☐ Soinu analogikoa digital bihurtzen du.
- ☐ Soinu digitala analogiko bihurtzen du.
- ☐ Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
- ☐ Audioaren sarrerako gailuak konektatzeko besterik ez du balio.

18.- Zeintzuk dira fitxategi sistemak?

- ☐ NFTS eta UNIX
- ☐ SCSI
- ☐ FAT eta FAT32
- ☐ Word eta Excel

19.- Konpainia bateko barne sareari honela deitzen zaio:

- ☐ Barne lokala
- ☐ WInternet-a
- ☐ Intranet-a
- ☐ Internet hibridoa

20.- NFTS formatua zera da:

- ☐ Prozesadoreen estandar bat.
- ☐ Testu fitxategien estilo bat, gutunetarako.
- ☐ Windows-eko fitxategi sistema bat.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2025KO DEIALDIA

490/2025 EBAZPENA, martxoaren 8koa

22-05-2025

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

21.- Kalkulu-orri bateko A1 gelaxkan 3 zenbakia idazten bada eta A2 gelaxkan $=2 \times A1$, orduan A2 gelaxkan honako hau agertuko da:

- ☐ 5
- ☐ 6
- ☐ 9
- ☐ 2A1

22.- Laptop pantailetan teknologia hau erabiltzen da:

- ☐ Lap motakoa
- ☐ CRT
- ☐ RCT
- ☐ LCD

23.- Linux sistema eragilea(k):

- ☐ Windows XPren bertsio zaharra da.
- ☐ UNIXen funtzionalitatea imitatzen duen doako sistema eragilea da.
- ☐ Komandoen ilara besterik ez du bere interfazean.
- ☐ Software jabetuna da Mac konputagailuetarako.

24.- Nola deitzen dira saguarekin klikatzen ditugunean beste orrialde batera eramaten gaituzten irudiak edo testua?

- ☐ Atariak
- ☐ Blank txartelak
- ☐ Loturak
- ☐ Nabigatzaileak

25.- Zer erabiltzen da Word-en datuen zutabe bat lerrokatzeko, kasu, indize bat?

- ☐ Tabulazioak
- ☐ Zutabe jauzia
- ☐ Koskak
- ☐ Eskuzko lerrokatzea